Xedapen Orokorrak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5581

AGINDUA, 2009ko urriaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Kontratazio Mahaia sortzeari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio araubide organikoari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 4. artikuluak xedatzen duenaren arabera, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta kasuan kasuko sailburuak batera emandako aginduaren bitartez, kontratazio-mahai bakarra sortuko da sail bakoitzean.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko lehendakariaren 4/2009 Dekretua aurreko maiatzaren 9an indarrean sartzeak sailen egitura aldatu egin du eta, horren ondorioz, dauden kontratazio mahaietan eragina izan du. Hori dela eta, sailen egungo kontratazio mahaiak esandako data horretatik indarrean dagoen egitura berriari egokitu egin behar zaizkio.

Horren arabera, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak egindako txostena dela, honako hau

XEDATU DUGU:

1. artikulua.– Justizia eta Herri Administrazio Saileko Kontratazio Mahaia.

1.– Zerbitzu Zuzendaritzari atxikita, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Kontratazio Mahaia sortzen da, Justizia eta Herri Administrazio Sailak egin beharreko kontratazioei dagozkien espedienteei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-arauei buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuko 5. eta 7. artikuluetan jasotako egitekoak burutu ditzan, artikulu horietan jasotako jardute-eremuan.

2.– Kontratazio mahai hori ondorengo kide hauek osotuko dute:

a) Lehendakaria: Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren Kabineteko zuzendaria.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

5581

ORDEN de 13 de octubre de 2009, del Consejero de Economía y Hacienda y de la Consejera de Justicia y Administración Pública, de creación de la Mesa de Contratación del Departamento de Justicia y Administración Pública.

El Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre Régimen de la Contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi dispone, en su artículo 4, que en cada departamento se creará por Orden conjunta del Consejero de Economía y Hacienda y del Consejero del Departamento correspondiente, una única Mesa de Contratación.

La entrada en vigor el pasado día 9 de mayo de 2009 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de los mismos, ha venido a modificar la estructuración departamental con la consiguiente incidencia en las Mesas de Contratación existentes, lo que requiere que se proceda a una adecuación de las actuales Mesas de Contratación departamentales a la nueva estructura vigente a partir de esa fecha.

En su virtud, previo informe de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa,

DISPONEMOS:

Artículo 1.– Mesa de Contratación del Departamento de Justicia y Administración Pública.

1.– Se crea, adscrita a la Dirección de Servicios, la Mesa de Contratación del Departamento de Justicia y Administración Pública para el ejercicio de las funciones y con el ámbito de actuación previstos en los artículos 7 y 5 respectivamente del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre Régimen de la Contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en relación con los expedientes cuya contratación corresponde al Departamento de Justicia y Administración Pública.

2.– La referida Mesa de Contratación estará compuesta por los siguientes miembros:

a) Presidente: el Director o Directora de Gabinete de la Consejera de Justicia y Administración Pública.

b) Mahaikideak:

Mahaikide bat, kontratua egin nahi duen zuzendaritzaren izenean, horren zuzendariak izendatuta.

Mahaikide bat, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren izenean.

Mahaikide bat, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren izenean.

Mahaikide bat, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren izenean, horren zuzendariak izendatuta, ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 6. artikuluko 3 eta 5 idatz-zatietan zehaztutako kasu eta erregimenarekin bat etorriz.

c) Idazkari-mahaikide lege-aholkularia: Zerbitzu Zuzendaritzari atxikitako teknikari bat, zuzenbidean lizentziatua dena, Mahaiko idazkari eta aholkulari juridikoaren funtzioak beteko dituena, hitzarekin eta botoarekin.

2. artikulua.– Ordezkapenak egiteko modua.

Lehendakaria ez dagoenean, Justizia Administrazioa Eraberritzeko zuzendariak beteko ditu horren eginkizunak.

Mahaikide idazkaria ez dagoenean, Zerbitzuetako zuzendariak izendatuko du haren ordezkoa, bere Zuzendaritzari atxikitako langileen artean, zuzenbidean lizentziatua izan behar dena.

Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, berariaz egin ez diren izendapenak eta Agindu honetan jaso ez diren ordezkapenak, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak erabakiko ditu. Izendatutako pertsonen artean ahalik eta alternantzia gutxien egon dadin saiatuko da eta izendapenak espedientean agertu beharko dira.

3. artikulua.– Agindu honen bitartez sortzen den Kontratazio Mahaiak lehendik sortutako edozein ordezkatzen du egungo Justizia eta Herri Administrazio Sailak esleituta dituen eskumenen arloan bere eginkizunak betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu dituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 13a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

b) Vocales:

Vocal en representación de la Dirección demandante de la contratación designado por su titular.

Vocal en representación de la Oficina de Control Económico.

Vocal en representación de la Dirección de Patrimonio y Contratación.

Vocal en representación de la Dirección de Informática y Telecomunicaciones, designado por su Director o Directora, en los supuestos y conforme al régimen previsto en los apartados 3 y 5 del artículo 6 del citado Decreto 136/1996, de 5 de junio.

c) Secretario-Vocal Asesor Jurídico: técnico con título de licenciado en derecho adscrito a la Dirección de Servicios, que ejercerá las funciones de Asesor Jurídico y Secretario de la Mesa, con voz y voto.

Artículo 2.– Régimen de sustituciones.

En el caso de ausencia del titular de la Presidencia ejercerá sus funciones la persona titular de la Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia.

En el caso de ausencia del vocal secretario, corresponderá al Director o Directora de Servicios el nombramiento de suplente, de entre el personal adscrito a su Dirección, que cuente con licenciatura en Derecho.

Conforme a lo dispuesto en el párrafo segundo del artículo 6.2 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, las designaciones no efectuadas con carácter singular y las suplencias no previstas en la presente Orden, serán acordadas por la Consejera de Justicia y Administración Pública. Dichas designaciones se efectuarán procurando la menor alternancia posible en las personas designadas y de ellas se dejará constancia en el expediente.

Artículo 3.– La Mesa de Contratación que se crea por la presente Orden sustituye a cualesquiera otras creadas con anterioridad para ejercer sus funciones en el ámbito de las competencias asignadas al actual Departamento de Justicia y Administración Pública, en virtud del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de los mismos.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de octubre de 2009.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.